

MERKATARITZARI BURUZKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA IDAZTEKO KONTUAN HARTU DIREN BALDINTZAPEN GEOGRAFIKOAK, EKONOMIKOAK, INGURUMENEKOAK ETA SOZIALAK

1

Biztanleria modu asimetrikoan banatzen da Nafarroako Foru Komunitatean: gero eta biztanle gehiago biltzen da Iruñerriaren inguruan eta, aldiz, Nafarroako lurraldeko eremu zabaletan despopulazioaren fenomenoak goraka doa.

2

Gero eta jende gehiago bizi da Nafarroan, eta gero eta zaharragoa, izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalak egindako proiektzioen arabera, 2035ean Nafarroako Foru Komunitateko biztanleria guztira 763.326 biztanle izango dela kalkulatu da. Kalkulatzen da 3 urtetik beherako biztanleria % 3,7 izango dela, 65 urte edo gehiagokoa % 23,4 eta 85 urte edo gehiagokoa % 3,8.

3

Desertifikazio komertziala Nafarroan ere eragiten ari da, eta, ondorioz, ikusten da joera dela lokal komertzialen kopurua murriztea: 2011n zeuden 7.099 merkataritza-lokaletatik 6.059 lokal geratu dira 2023an, hau da, % 15 murriztu dira.

4

Erosketagatiko mugikortasunak zeharkako inpaktua du, hots, hala lurralde-antolamenduari nola ingurumenari, hiri-inguruneari eta paisaiari eragiten die.

5

Nafarroako gazteak 14 urterekin hasten dira alkohola kontsumitzen, eta, mozkorraldien prebalentziari dagokionez, autonomia-erkidegoz autonomia-erkidego, ikusten da Nafarroako Foru Komunitatea nazio mailako maximora iristen dela erregistratutako hiru adierazleetatik bitan.

6

Inguruabar horiek, ezinbestean, merkataritza-jarduera hirigintzaren aldetik planifikatzera behartzen du, eta botere publikoek sustatu behar dute merkataritza-ekipamenduak bizitegi-inguruneetatik hurbil kokatzea, zirkulazioa, segurtasun-eza, kutsadura eta zaratak, besteak beste, saihesteko eta, gainera, adin handiko pertsonen edo desgaitasunen bat dutenek modu autonomo eta independentean eros ditzaten ohiko kontsumoko ondasunak.